



## LANERAKO ARROPA – Oinarrizko maila

Prozedura irekiaren bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

### 1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

#### 1.1. Kontratuaren xedea

##### 1. Koadroa

Kontratu honen xedea da, ingurumen-kalitateari dagokionez, gutxieneko irizpideak betetzen dituzten laneko jantziak erostea.

#### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

##### 2. Koadroa

Balioetsiko da, eskaintzen den produktuan, Oeko-Tex 100<sup>1</sup> ziurtagirian azken produktuko substantziei buruzko eskakizunak betetzen dituzten zuntzen %, pisuan.

##### 3. Koadroa

Balioetsiko da eskainitako produktuaren zuntzen edo elementu birziklatuen portzentajea pisuan. Ekoizpen-hondarretatik, ehungintzatik, jantzigintzako ebakinetatik eta kontsumitu ondorengo ehun-hondakinetatik eratorriak dira zuntz birziklatuak.

Balioetsiko da nekazaritza ekologikoko zuntz naturalez egindako produktuaren portzentajea pisuan, estandar hauen arabera: Europar Batasuneko 834/2007 zk.dun EEE araudia, AEBko Nekazaritza Saila-USDARENak (National Organic Programen arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena.

<sup>1</sup> [https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications\\_and\\_services/ots\\_100/ots\\_100\\_start.shtml](https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications_and_services/ots_100/ots_100_start.shtml)

#### 4. Koadroa

- Azken ehuneko **formaldehido** libre eta zati batean hidrolizagarriaren kantitateak ez du izan behar 75 ppm baino handiagoa azala ukitzen duten jantzietan, ezta 300 ppm baino handiagoa ere gainerako produktuetan, EN ISO 14184-1:2011 arauaren edo arau baliokidearen arabera.
- Ez da **asbesto**-zuntzen arrastorik egongo azken produktuan.

#### 5. Koadroa

- **Garbiketan eta lehorketan, produktuen dimentsioen aldaketa-balioak** ondorengoak baino txikiagoak izan behar dira (ISO 5077:2007 arauan edo arau baliokidean ezarritako metodoen arabera):
  - %8tik gorako murrizketa edo %4tik gorako handitzea.
- Irizpide hau ez zaie ezarriko:
  - «Lehorreko garbiketa» edo pareko etiketa argia duten produktuei (produktu horiek etiketa-mota hori ezarri ohi bazaie).
- Produktuek **kolore-sendotasunari** buruzko balio hauek izan behar dituzte (ISO 105:2010 arauan edo baliokidean ezarritako metodoen arabera):
  - Garbiketan: 3-4 maila
  - Izerditzean: 3-4 maila
  - Igurtzi hezean: 2-3 maila
  - Igurtzi lehorrean: 3-4 maila
- Irizpide hori ez zaie aplikatuko produktu zuriei edo «lehorreko garbiketa» etiketa edo baliokidea dutenei.

##### 1.2.1. Ingurumen-irizpide orokorrak zerbitzuari dagokionez

#### 6. Koadroa

- Produktuak banatzean, eskaintzaileak bere gain hartu behar du garraio-bilgarrien kudeaketa, bai zuzenean berrerabiltzeko, bai gaikako bilketa egiteko.
- Eskuekin erraz bereizteko modukoak izan behar dute bilgarriek, birziklapena errazteko.

## 2. Esleipen irizpideak

Esleipen-irizpideetan, elementu baloragarri bakoitzari ezarriko zaion haztapena zehaztu behar da. Ingurumen-irizpideak erabiliz erositako lanerako arropan, alderdi hauek balora daitezke, besteak beste:

### 7. Koadroa

- **Produktuen ingurumen-alderdiak eta alderdi teknikoak, % 20raino.**
  - Azken produktuko substantziei buruzko irizpideak betetzen dituzten zuntzen %, Oeko-Tex 100 estandarraren arabera, %10eraino.
  - Zuntz edo elementu birziklatuen edo nekazaritza ekologikotik datozen zuntz edo elementuen %, %10eraino.

Produktu bakarra erosten bada, zuzenean ezarriko dira irizpideak; kontratuan produktu bat baino gehiago badaude, ordea, irizpide baloragarriak produktu bakoitzaren arabera izango dira, eta mota ezberdinetako produktuen zenbateko osoari (kopurua) edo kantitate osoari —pisan— (produktu bakoitzeko kopurua eta kantitatea) egokitu. Irizpidea dena dela ere, baldintza-agirian zehaztu beharko da (ikus maila aurreraturako ehun-irizpideak).

## 3. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurrekezpina

Eskaintzen eta aurrekeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurrezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

### 8. Koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurrezte behar ditu, honela:

1. **Ingurumen-eskakizunen egiaztapen-zerrenda<sup>2</sup>** behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri guztiak** aurrezte behar dira.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetzak hori erakusten duten azterlan teknikoak aurrezte beharko ditu.

<sup>2</sup> Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua ikusi.

Eskuragarri: <http://www.ihobe.eus/> > Jarduera eremuak > Erosketa Publiko Berdea